



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2008ko irailaren 18ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and. (1)  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>o</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMENEZ FERNANDEZ and.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SAINZ jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.  
(1) 19:20an, 3. puntuko bozketa egin aurretik etorri da

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

KOLDO BIGURI jn.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko irailaren hemezortziko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2008ko MAIATZAREN 29an, 2008ko EKAINAREN 26an ETA 2008ko UZTAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILEREN AKTAK ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak aho batez onetsi ditu 2008ko maiatzaren 29an, 2008ko ekainaren 26an eta 2008ko uztailaren 28an egindako ohiko bileren aktak.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **2.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ JAUNA UDAL HONETAKO EZKER BATUA-BERDEAK TALDEKO ZINEGOTZI IZENDATZEA:**

Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 16ko 85. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak, 2008ko uztailaren 28ko ohiko batzarrean, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

*“EB-BERDEAK TALDEKO ANTONIO DANIEL HERRERA TORRECILLA JAUNAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA: EB-Berdeak taldeko kandidaturako zinegotzi horrek idazkia aurkeztu du (sarrera-erregistroko zk.: 5.161/08) eta horren bitartez uko egin dio udal honetako zinegotzi karguari; era berean, ukoa onartzeko eta legearen arabera behar diren izapideak egiteko eskatu du.*

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

*Udalaren Osoko Bilkura Antonio Daniel Herrera Torrecilla jaunak zinegotzi karguari uko egin izanaren **jakinarean gainean geratu da**. Horrela bada, Hauteskunde Batzorde Zentralari horren berri emango diola erabaki du, zinegotzi berria izendatzeko tramiteak egiteko, Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko azaroaren 29ko araudiaren 9.4 artikuluan, Hauteskunde Araudi Nagusiari buruzko 1984ko ekainaren 19ko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren 2003ko uztailaren 10eko Arauetan xedatutakoa aplikatuz. Bada, EB-BERDEAK taldearen hautagai-zerrendan zeuden pertsonen ordenari jarraituz, Iñaki Gomendiourrutia Sainz izendatu beharko litzateke.”*

Abuztuaren 20an Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunaren egiaztagiria sartu zen sarrera erregistroan (6182/08 zk.). Horrek bere ondare ondasunen eta jarduera profesionalen aitortpena aurkeztu du udalaren Idazkaritza Nagusian, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitako ondoreetarako. Ondoren, zinegotzi karguaren beharrak leialki beteko dituela dioen juramentu edo promesa egin beharko luke udalaren osoko bilkuraren aurrean.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio Iñaki Gomendiourrutia Sainz jauna karguaz jabetzeari, udalaren osoko bilkuraren aurrean zinegotzi karguaren beharrak leialki beteko dituela dioen juramentu edo promesa egin ondoren. Gai hau udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipiniko da, hilaren 18an egingo duen hurrengo batzarrean.

Hauteskuendeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108-8 artikulua arabera, karguaz jabetzen den momentuan eta bere kargua guztiz hartzeko, hautatutako hautagaiak Konstituzioa onartzen duela zin egin edo hitzeman beharko du.

Alkate-udalburuak zin egiteko formula irakurri du: *“Iñaki, zure kontzientzia eta ohorearen izenean hitzematen duzu Leioako udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak leial beteko dituzula Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula Estatuko oinarrizko arau gisa?, eta **Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak** zinegotzi kargua onartu du. Honakoa esan du:*

Aurrekoetan bezala adierazten dut, ahal dudan bezala, herri honi zerbitzatzeko gogoia dudala. Eskerrik asko.

Jarraian, amaieran sinatu duen idazkariak bertaratuei esan die hurrengo jarduerak egin behar direla, zinegotzi berriak aurrekoa, Daniel Herrera Torrecilla jauna, udal organoetan zituen kargu guztietan ordeztzeko:

A) 1.- Hurrengo batzordeetan **kide titularra** izatea:

- Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Batzordea.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

#### BIZKAIA

- Barne Araubideko Batzordea.
- Ogasun, Ondare eta Kontuen Batzorde Berezia.
- Tokiko Agenda 21eko eta Herritarren Partaidetzako Batzorde Berezia.

A) 2.- Hurrengo batzordeetan **ordezko kidea** izatea:

- Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordea.
- Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordea.
- Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enpleguko Batzorde berezia.

A) 3.- Hurrengo batzordean **burua** izatea:

- Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Batzordea.

B) 1.- Euskararen Erakundea izeneko Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluko kide titularra.

B) 2.- Soinu Atadia Fundazioaren Zuzendaritza Kontseiluko ordezkari kidea.

C) 1.- Konpentsazio Batzetako kidea.

D) 1.- Bilbao Bizkaia Kutzako (BBK) Batzar Nagusirako ordezkari ordezkaria.

E) 1.- EB-Berdeak udal taldeko bozeramailea.

Beste alde batetik, jarraian transkribatuta dagoen Alkatetzaren dekretuaren berri eman da:

#### 1214. ZK.KO DEKRETUA

2007ko Tokiko Hauteskundearen ondoren, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen, alkateordeen eta Informazio Batzordeetako buruen eta Zerbitzuetako ordezkari berezien izendapenak egin ziren 919/07 zk.ko Dekretuaren bidez.

Dekretu horrek gai berari buruzko uztailaren 10eko 645/07 Dekretua aldatu zuen.

Kontua da EB-Berdeak taldeko zinegotzi Daniel Herrera Torrecilla jaunak dimisioa aurkeztu duela, eta osoko bilkuraren gaurko bileran aurreikusita dago Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna karguaz jabetuko dela, aurreko zinegotziaren ordez.

Horren ondorioz, HONAKOAREN bidez, eta dekretu hau Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna EB-Berdeak taldeko zinegotzi karguaz jabetu ondoren indarrean sartzeko eten-baldintzapean, honakoa xedatu behar dut: aipatutako pertsonak Daniel Herrera Torrecilla jauna ordeztuko du 919/07 Dekretuaren bidez eman zitzaizkion kargu guztietan eta, hortaz, hurrengo karguetarako izendatuko da:

- Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordeko burua.
- Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeko eta Tokiko Agenda 21eko eta Herritarren Partaidetzako Batzorde Bereziko buruaren ordezkaria.
- Tokiko Agenda 21en eta Herritarren Partaidetzaren garapenari dagozkion eskumenez baliatzeko Zerbitzuko ordezkari berezia.

#### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, honakoa erabaki du:

1.- Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna EB-Berdeak taldeko zinegotzi karguaz jabetuko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2.- Aurretik aipatutako udal organoetarako, zerbitzu ordezkarietarako edo organoetako ordezkarietarako postu edo kargu guztietarako izendatuko da Gomendiourrutia jauna.

3.- Bi mila eta zortziko irailaren hemezortziko 1.214 zk.ko Dekretuaren jakitun geratuko da.

Ondoren, alkate-udalburuak ongi-etorria eman dio zinegotzi berriari, eta batzarrera sartu da, gainerako kideen artean duen jesarlekuan eserita.

**3.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 38. SEKTOREARI (LEIOANDI) BURUZKO ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 141. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako honen berri eman dute: osoko bilkurak 2008ko apirilaren 28an hartutako 7. erabakiaren bidez behin-behineko onetsi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez Plan Orokorreko 38. sektoreari (Leioandi) buruzko aldaketa, hasierako onespina jendaurrean agertzeko epean izandako alegazioen berri eman eta gero.

2/2006 Legearen 90.6 eta 91.2 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion, hark txostena egin zezan. Txostenak dioena loteslea izango da.

2008ko uztailaren 28an sartu zen idazkiaren bitartez (erref. zk.: 5.778) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak 2008ko uztailaren 17an hartutako erabakiaren ziurtagiria bidali zuen. Bertan espedienteari aldeko txostena eman zitzaion, inolako aldaketarik egin gabe.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak, 2/2006 Legearen 89., 91. eta 104. artikuluetan xedatutakoaren arabera, udalaren osoko bilkurak hurrengo erabakia hartzei buruzko irizpena eman du:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez Plan Orokorreko 38. sektoreari (Leioandi) buruzko aldaketa behin betiko onestea, 627 etxebizitza inguru eraiki ahal izateko (babes ofizialeko 407 etxebizitza eta 220 etxebizitza libre). Ildo beretik, udaletxearen eta Sarrienako biribilgunearen artean etorbidea irekiko da, tranbia handik joango dela Leioako geltokitik UPV/EHUr.
- Plan orokorra onetsi eta 10 laneguneko epean gehienez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari erabakiaren kopia bidaliko zaio.
- Ildo beretik, espedientea behin betiko onetsi eta hiru hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari ale oso bat bidaliko zaio (administrazio-tramiteetako udal espedientea eta fase guztietako agiri teknikoak barne hartuta), behar bezala bideratuta, paperean eta behin betiko onespeneren agiria, euskarri informatikoan, bideratuta ere, batzorde horrek artxiba dezan.
- Behin betiko onespeneren iragarkia egunkarietan argitaratuko da.
- Behin betiko onespeneri buruzko erabakien eta bederen hirigintza-arauen testu osoa BAO-n argitaratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak ale bat Foru Aldundiari bidali dionez, dagokion



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

hirigintza plana Plangintzaren Euskal Erregistroan dagoeneko sartu dela adieraziko da.

Irizpen hau hartu egin da, baina PP taldeko ordezkaria abstenitu da, espedientea hasieran eta behin-behineko onesteko faseetan haren taldeak azaldu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta.

### **EZTABAIDA:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak proposatuta, jarraian jaso den eztabaida gai-zerrendako 3., 4., 5., 6., 8. eta 9. puntuei dagokie, guztiak ere hirigintzako plangintzarekin zerikusia duten antzeko gai juridikoak direlako.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Osoko bilkura honetan aztertuko diren puntu gehienak dagoeneko aztertu izan dira, Plan Orokorraren edo Plan Partzialen aldaketan behin betiko onesprenak direlako, Lurzoruari buruzko Legea datorren irailaren 20an behin betiko indarrean sartzearen ondorioz, eta ildo horretatik, gure jarrera aurreko osoko bilkuretan adierazi izan dugu.

Egin nahi diren onesprenak Leioarentzat beharrezkoak eta egokiak diren jarduerak biltzen dituzte, izan ere, hiria eratzen dute, etxebizitza babestua sortzen dute, tranbia jartzea ahalbidetuko da eta lurzorua erreserbatuko da Pinosoloko kiroldegirako.

Honen inguruan egiten dugun kritika bereziki hauxe da: gobernu taldea Leioandin eta Torresolon baita Ubedenen ere lege berria aplikatu ez dadila eta etxebizitza babestuaren parametro berriek eraginik izan ez dezatela saiatzen ari da. Horrenbestez, etxebizitza gutxiago egingo dira eta horrek inkoherentzia politikoa uzten du agerian, Leioan gobernatzen duten alderdiek, alderdi berberak Eusko Jaurlaritzan onesten dutena aplikatzea saihesten dutelako.

Edonola ere, gure jarrera abstentzioa izango da osoko bilkura honetako hirigintzako gaiari buruzko puntu guztietan eta, hirigintzako lege berriaren aplikazioa saihesteko, direnak eta ez direnak egin behar izan dituztela ulertzen dugu. Bada, gure abstentzioaren bidez jokabide hori kritikatu nahi dugu.

Ubedeneri dagokionez, osoko bilkuraren 2005eko erabaki bat ondore gabe uzten ari direla ikusten dugu, horren bidez, legeria berriaren aplikazioa saihesteko.

Ondiz gunearen planaren aldaketaren behin betiko onesprenak ez dio babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari eragiten baizik eta legeria berriaren ondoriozko prozedurazko gaiak saihestearekin zerikusia du, eta horrek teknikariak ohiz kanpoko lana egitera behartu ditu. Hori dela eta, teknikariak zoriondu nahi ditugu.

Azken batez, erabaki hauen bidez hirigintza garapenari emango zaion bultzadarekin ados gaude, nahiz eta ez gauden ados gobernu taldearen jokabidearekin eta gainera, azpimarratu behar dugu babes ofizialeko etxebizitza kopuru handia ez dela egin % 75en aplikazioa saihestean, horixe baita lege berriak horrelako etxebizitzetarako ezartzen duen portzentajea.

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Batzordean nahiko eta sobera eztabaidatu den gai batean PPK parte hartu duenez, jendaurrera agertu behar dugu jokabide horren ondoreak orekatzeko.

PPko bozeramaileak ez du ekarpen berririk egin eta talde politikoen irizpidea teknikarien lanean oinarritu dela azpimarratu behar dut. Kontraesankorra da teknikariak goraiatzea eta horien alde agertu diren politikariak kritikatzeko.

Beste alde batetik, zinegotzi berriari, Iñaki Gomendiourrutia jaunari, ongietorria eman nahi diot. Haren eskarmentua gobernu taldearentzako ekarpen handia izatea espero dugu.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak hirigintza gai hauetan izan duten jarrera eta ahalegina eskertu nahi dut baita haien parte-hartzeen tonua ere, nahiz eta ez natorren bat PPko bozeramaileak eman dituen kopuru batzuekin, izan ere, etxebizitza kopuruaz hitz egin du baina lege berriak metro karratuez hitz egiten du. Gaizki-ulertuak sortzen dituen parametro ezberdinak nahastu ditu. Bada, nik ez dakit araudi berriak etxebizitza kopurua gehitu edo gutxitu duen.

Beste alde batetik, gaur egungo egoera ekonomikoak etxebizitza berrien salmentaren kudeaketa arrakastatsuari buruzko zalantzak sortzen ditu eta azkenean, PPren abstentzioarekin bada ere, orain lortu dugun erdiakordio hau merkaturatuko diren 877 etxebizitza publikoak kudeatzeko orduan ere lortzea espero dut. Berrito eskerrak eman behar dizkizuet gai hauetan egindako lanarengatik.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** esandakoaren laburpena:

PPko bozeramaileak koherentzia politikoaz esan duenari loturik, gaur onetsiko denak, legeria berriaren aplikazioa saihestuz, azkenean onetsi zen proiektu politikoarekin barik guk hasieran geneukan proiektu politikoarekin du antz handiagoa, izan ere, gobernatzen dutenak gutxiengo direnean urratu bat edo beste jasaten dira, eta, edonola ere, ez du komeni "txurak eta merinoak" nahastea ezta metro karratuak eta etxebizitzak ere.

Edonola era, erakundeok gaur egun kontrolatzen ez ditugun sustatzaileen eta agente ekonomikoen eskuetan dago irtenbidea, nahiz eta lana aurreratu nahi dugun etxebizitza ondasun publikoa izan dadin ehuneko ehunean. Azpimarratu behar dugu aurkeztu den proposamenak legea errespetatzen duela eta herritarrentzako onura izatea dela asmoa.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Berrito ere Udalbatzara ongiatorria eman nahi diot EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunari eta berarekin hemen une onak berrito bizitzea espero dut, gure arteko desakordio politikoa gorabehera.

PSE-PSOeko bozeramailearen parte-hartzeari lotuta, jasota utzi nahi dut gure jarrera ez dela aldatu espedienteen tramitazioan "*bizkortze prozesu*" hau hasi zenetik, izan ere, PNV eta EB taldeengan koherentzia politiko falta ikusten genuen eta horren ondorioz teknikariek lan zorrotza egin behar izan dute. Berrito diogu talde horiek gobernuan eta Eusko Jaurlaritzan batetik eta udalean bestetik defendatzen dutenaren inguruan irizpide batasunik ez dagoela uzten du agerian.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Lehenik eta behin, uste dut osoko bilkura hau historikoa dela, aldeko botoa ematerakoan adostasuna egon ez den arren, PPren abstentzioa gauza ia guztien alde dagoela bezala ulertzen dut, eta gaur onetsitakoa azken osoko bilkuran onetsitako plangintzarekin batzen badugu, eraiki ahal izango den etxebizitza kopurua BOEko 1.005 etxebizitza inguru dira. Horrenbestez, eraiki diren etxebizitzak % 65eko portzentajera ia heltzen da.

Hemendik aurrera kudeaketa fasea dator eta kontuan hartu behar dugu merkatuak txarrera egin duela, horrenbestez, udalak aurreikusitako BOEko etxebizitzak eraikitzeke modua egoteaz kezkatuta egon behar du funtsean, eta hori guztia udal gobernuan nor dagoen alde batera utzita, lan publikoa egitea bezain garrantzitsua delako etxebizitza publikoa eraikitzea, etxebizitzak eraikuntzak lana, merkataritza eta abar sorrarazten dituela kontuan hartuta.

Azkenik, egiaztatu behar dut garai errazak joan direla eta lan gogorra egin behar dugula onetsi dugun plangintzaren kudeaketa arrakastatsua izan dadin.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** behin betiko **onetsiko dela** 38. sektorearen (Leioandi) Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala. Osoko bilkuraren erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Plangintzaren Euskal Erregistroari bidali beharko zaio.

**4.- LEIOANDI EREMUAREN (HAPOKO 38. SEKTOREA) PLAN PARTZIALAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN ERAGINKORTASUNA, OINARRI DUEN PLANGINTZAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEAN:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 142. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko apirilaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala behin betiko onetsi zen, oinarri duen plangintzaren aldaketa behin betiko onestearen baldintzapean.

Nahiz eta hirigintza-arloko legediak plangintza eta kudeaketako agiriak aldi berean idatzi eta ontzat emateko aukera ematen duen, baldintzekin, arau-hierarkiaren printzipioa, zentzu hertsian, aplikatu behar da hori betearazteko orduan. Dena den, plan partzial hau behin betiko onetsi zen, oinarri duen plangintza aldatzeko espedientea behin betiko onestearen baldintzapean, eta inguruabar hori dagoeneko gauzatu da aurreko erabakian. Hori dela eta, alderdi horren berri emango da, plan partziala betearaztearren.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala behin betiko onestea, inolako baldintzarik gabe, oinarri duen plangintzaren aldaketa behin betiko onetsi baita.
- Dagokion iragarkia egunkarietan argitaratuko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).
- Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzearren.
- Behin betiko onespenaren erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa argitaratuko da BAO-n, Plangintzaren Euskal Erregistroan plan partziala sartu egin dela adierazita.

Irizpen hau hartu egin da, baina PP taldeko ordezkaria abstenitu da, hasieran eta behin-behineko onesteko faseetan gai hau eztabaidatzean haren taldeak azaldu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta.

### **EZTABAIDA:**

3. puntu idatziz jasotako eztabaida errepikatu da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** behin betiko **onetsiko dela** Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**5.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 44. SEKTOREARI (TORRESOLO) BURUZKO ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 144. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako honen berri eman dute: osoko bilkurak 2008ko apirilaren 28an hartutako 6. erabakiaren bidez behin-behinean onetsi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez Plan Orokorreko 44. sektoreari (Torresolo) buruzko aldaketa, hasierako onespina jendaurrean agertzeko epean izandako alegazioen berri eman eta gero.

2/2006 Legearen 90.6 eta 91.2 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion, hark txostena egin dezan. Txostenak dioena loteslea izango da.

2008ko uztailaren 28an sartu zen idazkiaren bitartez (erref. zk.: 5.778) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak 2008ko uztailaren 17an hartutako erabakiaren ziurtagiria bidali zuen. Bertan espedienteari aldeko txostena eman zitzaion, inolako aldaketarik gabe.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak**, 2/2006 Legearen 89., 91. eta 104. artikuluetan xedatutakoaren arabera, udalaren osoko bilkurak hurrengo erabakia hartzeari buruzko irizpena eman du:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez 44. sektoreari (Leioandi) buruzko aldaketa behin betiko onestea, 357 etxebizitza inguru eraiki ahal izateko (babes ofizialeko 232 etxebizitza eta 125 etxebizitza libre). Ildo beretik, Pinosolo parkea handitu eta azkenduko da, Txorierrri auzorako sarbideak hobetuko dira, Ondiz auzoarekin hiri-bilbea eratuko da eta kirol-azpiegituretarako beharrezko lurak erabilgarri egongo dira.
- Plan orokorra onetsi eta 10 laneguneko epean gehienez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari erabakiaren kopia bidaliko zaio.
- Ildo beretik, espedientea behin betiko onetsi eta hiru hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari ale oso bat bidaliko zaio (administrazio-tramiteetako udal espedientea eta fase guztietako agiri teknikoak barne hartuta), behar bezala bideratuta, paperean eta behin betiko onespeneren agiria, euskarri informatikoan, bideratuta ere, batzorde horrek artxiba dezan.
- Behin betiko onespeneren iragarkia egunkarietan argitaratuko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

#### BIZKAIA

- Behin betiko onespenerari buruzko erabakien eta bederen hirigintza-arauen testu osoa BAO n argitaratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak ale bat Foru Aldundiari bidali dionez, dagokion hirigintza plana Plangintzaren Euskal Erregistroan dagoeneko sartu dela adieraziko da.

Irizpen hau hartu egin da, baina PP taldeko ordezkaria abstenitu da, hasieran eta behin-behinekoz onesteko faseetan gai hau eztabaidatzean haren taldeak azaldu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta.

#### **EZTABAIDA:**

3. puntuari idatziz jasotako eztabaida errepikatu da.

#### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** behin betiko **onetsiko dela** 44. sektorearen (Torresolo) Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala. Osoko bilkuraren erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Plangintzaren Euskal Erregistroari bidali beharko zaio.

**6.- 37. ARLOARI (ONDIZ HUTSIK) BURUZKO PLAN OROKORRA ALDATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN BETIKO ONESTEA, ERAIKIGARRITASUNA HANDITU GABE ETXEBIZITZA KOPURUA HANDITZEKO AUKERARI DAGOKIONEZ.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 145. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Osoko Bilkurak 2008ko maiatzaren 29an egindako batzarrean hartu zuen 6. erabakiaren bidez, hasieran onetsi zen Plan Orokorren aldatzeko espedientea, 37. Arloari (Ondiz hutsik) buruzkoa, eraikigarritasuna handitu gabe etxebizitza kopurua handitzeko aukerari dagokionez.

Honako proposamena egin da, hain zuzen ere:

	<b>PLAN OROKORREAN</b>	<b>PROPOSATUTAKO ALDAKETAN</b>	<b>DIFERENTZIA</b>
BOE	76	92	16
EL	40	48	8
<b>GUZTIRA</b>	<b>116</b>	<b>140</b>	<b>24</b>

2008ko ekainaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatu duen 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, argitaratu zen. Arau horren laugarren xedapen gehigarriaren arabera, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordean izapidetu beharreko espedienteetan Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostena erantsi behar da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udaleko Bulego Teknikoak txosten batean adierazi du, haren ustez, administrazioaren araudiak egiteko ahalmena gainditu egin dela, Udaleko Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostenak eskatzerakoan, plan orokorraren idazketa teknikoari lotu gabeko espedienteetan (2/2006 Legearen 109. art.). Aholkurako eta parte-hartzeko organo honek plangintzari eragiten dizkion erabaki nagusiak hartzen ditu eta ez, ordea, plangintzaren aldaketa txikiak egin. Edonola ere, esku artean dugun espedientea antolamendu xehatutzat har daiteke, eta ez dago zertan Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali, etxebizitzakopuruari buruzko aldaketa txikia delako eta ez zaielako plangintzaren oinarritzko parametroei eragiten, hala nola, eraikigarritasunari, altuerari eta abarrei. Kontrara ulertuko balitz, espedientea geldiarazi beharko litzateke, harik eta Leioako udal mugartean Udaleko Plangintzako Aholku Batzordea eratu arte, BOEak sustatuko dituen kooperatibak eskabideak aurkezteko epeak hasi ahal izateko herritarren presioa handia izanez gero. Udalak logikoa denez ez dio nahi plangintzaren aldaketei buruzko eztabaida publikoari eragozpenik jarri, izan ere, gai honek jendaurrean agertzeko epealdiak betetzeaz gain, herritarrei postontzietan banatu zaien herriko aldizkarietan agertu da. Txosten hau ez da kontraesankorra hasieran onesteko espedientean adierazitakoarekin; izan ere, garai hartan baziren aldatu beharreko plangintzaren ezaugarriak buruzko zalantzak, baina administrazio-koordinazioaren printzipioari jarraiki, egokitzen jo zen gaia Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaltzea. Ondoren 105/2008 Dekretua agertu zenez eta horrekin batera hirigintzako eragiketa hau kudeatzeko premia zegoenez, irizpidea aldatzea gomendagarria da. Zentzu berean, etorkizunean arazoak ekiditeko, batez ere araudiaren irizpidea argia den egiturazko plangintzari eragiten dizkieten aldaketei dagokienez, Plangintzako Aholku Batzordea eratzeko izapideak ahalik eta arinen hastea proposatu da.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- 2008ko irailaren 1ean Udaleko Bulego Teknikoak egindako txostena osorik berretsiko da, honako aldaketa plangintza xehatutzat hartzen delako, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari txostena eskatu behar izan gabe.
- 37. arloari (Ondiz hutsik) buruzko plan orokorra aldatzeko espedientea behin betiko onetsiko da, eraikigarritasuna handitu gabe etxebizitza kopurua gehitzeko aukera emateko.
- Dagokion iragarkia egunkarietan argitaratuko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).
- Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzearen.
- Behin betiko onespeneraren erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa argitaratuko da BAO, Plangintzaren Euskal Erregistroan plan partziala sartu egin dela adierazita.

#### **EZTABAIDA:**

3. puntuari idatziz jasotako eztabaida errepikatu da.

#### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** behin betiko **onetsiko dela** 37. arloari (Ondiz Hutsik) buruzko plan orokorra aldatzeko espedientea, eraikigarritasuna handitu gabe



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

etxebizitza kopurua handitzeko aukerari dagokionez, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**7.- LEIOAKO TAXI-GIDARIEN ESKAERA, IBILGAILUEN GAUR EGUNGO KOLORE ZURIA ZILAR KOLOREAREKIN (GRIS METALIZATUA) ORDEZTU AHAL IZATEKO BOST URTEKO EPEAN.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 148. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Osoko bilkurak 2005eko urtarrilaren 27an hartu zuen 2. erabakiaren bitartez, onetsi zen Taxiaren Udal Araudia, Eusko Legebiltzarraren araudiari egokitzeko. Araudi horren 26. artikulua arabera ibilgailuak zuriak izan behar dira nahitaez.

2008ko ekainaren 25eko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroko zk.: 4.966) Leioako udal mugartean taxi-lizentzia duten pertsona guztiek honakoa adierazi zuten:

*“Leioako taxi-gidari industrialek egindako batzarrean, aho batez erabaki dugu, udalerriko autotaxi ibilgailuen kolorea aldatzea komenigarria dela.*

*Gaur egun ibaiaren eskuinaldeko udalerrri guztietan autotaxi ibilgailuak zilar kolorekoak dira (gris metalizatua). Horrenbestez, sarritan herritarrek eta erabiltzaileek Bilboko, Barakaldoko eta abarretako taxiekin erratzen gaituzte.*

Aipatutako arrazoi horrez gain, zilar kolorea (gris metalizatua) aukeratu da ibilgailuaren kanpoko itxura garbiak denbora luzeagoan irauten duelako ongi, eta halako pinturak erresistentzia eta iraunkortasun handiagoa duelako, ibilgailu hauek zertarako erabiltzen diren kontuan hartuta.

Bestalde, aintzat hartu beharrekoa da halako kolore eta pinturako ibilgailuetan besteetan baino alde gutxiago daudela marka batetik besterako tonuetan. Horrenbestez, orain arte ez bezala, ez dugu ikusiko taxi-geltokietan kolore ezberdineko autoak (zuria, krema-zuria, marfila eta abar).

Idazki honekin batera Leioako taxi-gidari industrial guztien adostasuneko agiria erantsi da.

#### HONAKOA ESKATZEN DUGU

Idazki honen bidez gure arrazoiak aintzat hartuak izan daitezela eta gure eskaera ahalik eta lasterren onetsia izan dadila eta autotaxi ibilgailuen gaur egungo kolore zuria zilar kolorearekin (gris metalizatua) ordeztu ahal izateko baimena eman diezagutela. Ondoren bost urteko epea egon dadila eskatzen dugu, erosi den azken auto zuria jabeak behar den bezala amortizatu dezan.”

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Osoko bilkurari dagokion erabakiaren bitartez, onetsiko da Taxiaren Udal Araudia aldatzeko espedienteari hasiera ematea, ibilgailuen gaur egungo kolore zuria zilar kolorearekin (gris metalizatua) ordeztu ahal izateko bost urteko epean.
- Dagokion iragarkia BAO-n argitaratuko da eta 30 eguneko epea ezarriko da, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezten. 26. artikuluan honako aldaketa egingo da, hain zuzen ere:
  - \* **Honakoa dioen lekuan:**” ..... *ibilgailuak zuriak izango dira*.....” .
  - \* **Beste hauxe esan behar du:** “ .....*ibilgailuak zilar kolorekoa izango dira (gris metalizatua)*.....”



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

XEDAPEN IRAGANKOR BERRIA:

- Bost urteko epea ezarriko da, honako aldaketa indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, taxi-gidari guztiek zilar koloreko ibilgailua (gris metalizatua) izan dezaten.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** behin betiko onetsiko dela udalerriko taxien gaur egungo kolore zuria zilar kolorearekin (gris metalizatua) ordeztu ahal izatea bost urteko epean, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**8.- HAPOKO 34. SEKTOREAREN (UBEDENE) PLAN PARTZIALA BEHIN-BEHINEKOZ ONESTEKO OSOKO BILKURAK 2005eko UZTAILAREN 28an HARTU ZUEN ERABAKIA ONDORIORIK GABE UZTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 9ko 154. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

- Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako aurrekari hauen berri eman dute:
  - **2004ko maiatzaren 11:** Tokiko Gobernu Batzarrak, 364. ebazpenaren bitartez, hasieran onetsi zuen Ubedene Sektorearen Plan Partziala, ARK ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L. merkataritza-etxeak idatzita.
  - **2005eko uztailaren 28a:** Udalaren osoko bilkurak 3. erabakiaren bidez behin-behinean onetsi zuen aurreko paragrafoan adierazitako plan partziala. Onespenaren barruan testu bategina egin beharra agertzen zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailari bidaltzeko, espedientea behin betiko onesteko erakunde eskuduna den aldetik.
  - **2006ko irailaren 20a:** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean sartu zen. Horren bidez antolamendu xehatuko tresnak, hala nola, plan partzial bat, behin betiko onesteko eskumena eman zaie udalei. Behin-behineko araubideak espediente honetan eragina duten bi atal ditu, besteak beste:
    - \* Plan partzialak 2008ko irailaren 20a baino lehen onetsi behar izatea, aurreko arautegiari egokitutako plangintza-tresnetako etxebizitza babestuen parametroei eustearren.\* 2/2006 Legea indarrean sartu zenean behin-behinean onetsitako plan partzialak Foru Aldundiari bidali beharko zaizkio, behin betiko onetsi dituzan.

Leioako udalak 124 BOE herritarren esku jartzen dituen plan partzial honetako aurreikuspenak ahalik eta azkarren kudeatu nahi dituzenez, toki-administrazio honek 2008ko irailaren 20a baino lehen espedientea behin betiko onesteko aukera aztertu beharra dago, nahiz eta printzipioz 2/2006 Legearen behin-behineko araubidearen literaltasunaren aurkakoa den.

Hori dela eta, udalaren zerbitzu teknikoek 2008ko irailaren 8an txostena egin dute, eta honakoa adierazi dute, hain zuzen ere:

*“.....udalak plan partziala behin betiko onestea posible izango litzateke Euskadiko Legearen aurreko behin-behinean onesteko egintza egongo ez balitz. Horrenbestez, erraz gainditu daitekeen eragozpen formala dago.*”



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

## BIZKAIA

*Behin-behinean onesteko egintza ondore gabe uzteak udalari aukera emango lioke planean azaltzen den antolamendu xehatua behin betiko onesteko.*

*Erabaki hori eragozpen barik har daiteke. Horretarako behin-behinean onesteko egintza ondore barik uzteko aitorpena baino ez litzateke beharrezkoa izango. Izan ere, tresna edo izapide egintza gisa, ez du funtsik prozeduraren urrats hutsa delako.*

*Plangintzak egiteko eginkizunari atxikitako irizpidea aldatzeko aukera dagoen moduan, berau dinamikoa izanik eta errealitatearen eskakizun aldakorretara egokitu behar izanik (Auzitegi Gorenak epai askotan behin eta berriz adierazitakoaren arabera), ez dago inolako eragozpenik udalak, azkartasun eta eraginkortasun arrazoiengatik, aurkako agintearen egintza gauzatzeko, hau da, behin-behineko onespina ondore barik uzteko eta hirigintzako legean aitortutako eskumena berreskuratzeko.*

*Administrazio ahalmen hutsaren (edo "ius variandi") beste adierazpen bat besterik ez litzateke izango; hori funtsean eskumeneko ahalmena da, administrazioari legegileak haren plangintza bideratu eta onesteko prozesuan parte hartzeko ematen dion autonomia egi bihurtzeko beharrezko mekanismoak aktibatuzko aukera ematen dion neurrian.*

*Kontuan hartu behar da jurisprudentziak diola izapide hutsa den egintzat hartuko direla prozedura baten barruan, planak hasieran onesteko edo behin-behineko onesteko egintzak (Auzitegi Gorenaren 1981eko martxoaren 28ko, 1992ko martxoaren 10eko eta 2001eko uztailaren 2ko epaiak, besteak beste).*

*Berrito diogu udal administrazioak erabakiak hartzeko dituen eskumenetako beste bat dela, ez bakarrik antolamendua erabakitzeko, baizik eta horren behin betiko onespina bere gain hartzea bidezkoa den zehazteko ere, egokien dela uste duen moduan.*

*Horrenbestez, ez dago inolako eragozpen materialik ez formalik, udalak aurreko udalbatzak hartu zuen behin-behineko onesteko erabakia ondore barik uzteko eta, hortaz, plan partziala behin betiko onesteko, legegileak ematen dion eskumenaz baliatuta.*

*Hori guztia dela eta, honakoa proposatzen da:*

### **ONDORIOA.**

*Leioako udalak Ubedeneko Hiri Antolamendurako Plan Partziala behin betiko onets dezake, baldin eta aurretik 2005eko uztailaren 28ko behin-behinean onesteko egintza ondorerik gabe uzten badu."*

## **Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:**

- Udalaren Bulego Teknikoak egindako txostena osorik berretsiko da.
- Osoko bilkurari dagokion erabakiaren bitartez ondorerik gabe geratuko da 2005eko uztailaren 28an hartutako 3. erabakia, Leioako udala gai hau behin betiko onesteko administrazio eskuduna izan dadin. Aipatutako erabakiaren bidez behin-behinean onetsi zen HAPOko 34. sektorearen (UBEDENE) plan partziala.

### **EZTABAIDA:**

3. puntuan idatziz jasotako eztabaida errepikatu da.

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemezortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarietak, PSE-EEko sei zinegotzietatik eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzietatik; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzietatik. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** ondore gabe uztea udalaren osoko bilkuraren 2005eko uztailaren 28ko erabakia, HAPOko 34. sektorearen (Ubedene) plan partziala



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

behin-behinean onetsi zuena, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

### **9.- HAPOko 34. SEKTOREAREN (UBEDENE) PLAN PARTZIALA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 9ko 155. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako aurrekari hauen berri eman dute:

- **2004ko maiatzaren 11:** Tokiko Gobernu Batzarrak, 364. ebazpenaren bitartez, hasieran onetsi zuen Ubedene Sektorearen Plan Partziala, ARK ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L. merkataritza-etxeak idatzita.
- **2005eko uztailaren 28a:** Udalaren osoko bilkurak 3. erabakiaren bidez behin-behinean onetsi zuen aurreko paragrafoan adierazitako plan partziala. Onespenaren barruan testu bategina egin beharra agertzen da, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailari bidaltzeko, espedientea behin betiko onesteko erakunde eskuduna den aldetik.
- **2008ko irailaren 9a:** Batzorde honek plan partzialaren behin-behineko onespena ondorerik gabe uztea bidezkoa dela jakinarazi zuen, 2008ko irailaren 20 baino lehen espedientea behin betiko onetsi ahal izateko.

Horregatik, eta aurreko irizpenean jasotako argudioak oinarritzat hartuta, Plan Partziala behin betiko onestea proposatu da, 190 etxebizitza berrien (124 BOE eta 66 EL) sustapenaren kudeaketa ahalbidetuko duen agiria sustatzeko udalak duen interesarengatik. Ildo beretik, tranbiaren ibilbidea izango diren lursailen zati bat Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailaren eskura jartzea ahalbidetuko da. Lursailok kota egokian eta behar bezala urbanizatuta egongo dira.

Birpartzelazio proiektuarekin bukatuko den kudeaketa fasean, Leioako udalak ukitutako jabeekin BOEren sustapenerako izango diren lursail guztiak eta urbanizazio kargak adjudikatzeko aukera negoziatuko du, kudeaketa berezia eta autonomoa ahalbidetuz, higiezinaren merkatuaren egoera gorabehera.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako jarduerak hartzea komeni dela:

- HAPOko 34. sektorearen (Ubedene) Plan Partziala behin betiko onestea.
- Dagokion iragarkia egunkarietan argitaratuko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).
- Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzearen.
- Behin betiko onespenaren erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa argitaratuko da BAOn, Plangintzaren Euskal Erregistroan plan partziala sartu egin dela adierazita.

#### **EZTABAIDA:**

3. puntuari idatziz jasotako eztabaida errepikatu da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemezortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarienak, PSE-EEko sei zinegotzierenak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzierenak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzierenak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** HAPOk 34. sektorearen (Ubedene) plan partziala behin betiko **oneste**a, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**10.- BIDEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN 3. ALDAKETA, KONTRATUAREN XEDE DEN AZALERA PINOSOLO PARKEAN, SKATE KIROL-INSTALAZIOAN, ALDAPABARRENAN, LEKU-EDERREN ETA JAPAN-CAR ALDEAN (TUCAN ONDOAN) HERRI ERABILERA ETA JABARIARI LAGATAKO URBANIZAZIO BERRIEKIN HANDITZEKO.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 9ko 157. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute osoko bilkurak 2003ko urtarrilaren 30ean hartu zuen 3. erabakiaren bitartez LEIOANDI ABEEri adjudikatu zitzaizola Bideak garbitzeko zerbitzua, urtean 1.248.620,64 euroko guztizko zenbatekoan (BEZa barne).

Zentzuzkoa denez, zerbitzu hori eguneratu egin behar da, zerbitzuaren xede den azalera handitu behar delako, higiezin sustapen berrietan Leioako Udalari herri jabari eta erabilerako guneak lagatzearen ondorioz. Halaber, urbanizazio berrien zerbitzuan hobekuntza gauzatu behar da.

Une honetan hirugarren espedientea formalizatu beharra dago, hurrengo lekuetan garbiketa zerbitzuaren handitzea jasotzeko:

1. Pinosolo parkea, bidegorria eta oinezkoentzat diren barruko bideak.
2. Skate ingurua; gazte ugari batzen dira bertan asteburuetan.
3. Aldapabarrenaren aldea, Mercedarias ikastetxetik Skate ingururaino.
4. Lekueder oinezkoen kalea eta Ugarteondo parkea.
5. Tucan merkataritza-gunetik Toyota ibilgailu-kontzesionariora egindako kale berria.

Enpresa adjudikaziodunak aurkeztu duen aurrekontua: 5.408,70  $\square$ koa (BEZ barne) izango da hilean. Hau da, 64.904,37  $\square$  (BEZ barne) urtean.

Udaleko Bulego Teknikoak aipatutako txostenaren aldeko txostena egin du 2008ko irailaren 1ean.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako jarduerak egitea komeni dela:

- Bere garaian Leioako Udalak eta LEIOANDI ABEEK bideak garbitzeko zerbitzua emateko sinatu zuten kontratua handituko da, lehen adierazitako herri erabilera eta jabariko gune berriak garbitzeko. Kostua 5.408,70 euro (BEZ barne) izango da hilean. Hau da, 64.904,37 euro urtean.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

#### BIZKAIA

- Kontratua zabaltzeko beharrezko agiria egingo da. Horretarako, LEIOANDI ABEEK 2.596 euroko banku-abala aurkeztu beharko du (adjudikatutako zenbatekoaren % 4ren baliokidea), behin betiko bermea ere zabaldu delako.
- BAO n beharrezko iragarkia argitaratuko da.
- Espedientea onetsi ondoren, bere laburpena Kontuen Euskadiko Auzitegiari bidaliko zaio, fiskaliza dezan.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** behin betiko onetsiko dela bideak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 3. aldaketa, kontratuaren xede den azalera Pinosolo parkean, skate kirol-instalazioan, Aldapabarrenan, Leku-Ederren eta Japan-Car aldean (Tucan ondoan) herri erabilera eta jabariari lagatuko urbanizazio berriekin handitzeko, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**11.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2008-07-28tik 2008-09-12ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatezak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Udalaren logotipoari buruzkoak diren 1.083 eta 1.106 zenbakietako dekretu biei buruz hitz egingo dut. Barne Araubideko Batzordean gure irizpidea azaldu genuen, nahiz eta gure iritzia udalaren osoko bilkuran ere azaldu behar dugula uste dugun. Armari berria onetsi zenean, aukera bat baino gehiago aurkeztu ziren eta denok horri buruzko iritzia eman ahal izan genuen, izan ere, Batzordean aztertu zen eta orain, hala ere, alkateak berak bakarrik onetsi du logotipoa.

Beste alde batetik, logotipo hori dagoeneko udal argitalpen batean agertu da baita jardueraren bat iragartzeko erabili ere eta hori guztia zinegotziok ezagutu aurretik izan da. Zinegotziok aurreko Barne Araubideko Batzordean ezagutu genuen batzordeburuak aurkeztu zuenean. Uste dugu garrantzi handiko gaia ez den arren, armaria bera baino leku gehiagotan ikusiko dela eta denok parte hartu behar genuela hori aukeratzeko prozesuan, agian ideia lehiaketa bat egin eta gero.

Azken batez, eskuduntza alkateari dagokion arren, horrek ez luke eragotzi behar udal talde guztien parte hartzea eta horren bidez emaitza hobea lortuko zatekeen, onetsi den logotipoa Leioaren duinekoea ez dela uste baitugu.

Bukatzeko, berriro esan nahi dut alkateak ez dituela gauzak behar den moduan egin, eta alkatearen jarrera hori kritikatu nahi dugu eta beren-beregi kritikatu ere osoko bilkura honetan.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**PSE-EEko Nekane Jiménez Fernández andreak** esandakoaren laburpena:

1.181 Dekretuaren arabera, Leioa Kirolak sozietateak Kultureko auditoriuma doan erabili du webgune bat aurkezteko. Nik uste nuen Kultur erabiltzeko kuotaren bat edo alokairuren bat ordaindu behar zela eta jakin nahi nuke arrazoia zein den eta horretarako bete behar diren betekizunak zein diren.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

PPko Xabier Olabarrietak egindako kritika neure gain hartu dut nahiz eta Barne Araubideko Batzordean bidezko azalpenak eman izan diren eta, azalpen gehiago nahi badituzue, hurrengo osoko bilkura batean edo batzorde batean emango dira.

PSEren galdera dela eta, ekitaldia ez da oraindik egin baina gogoratzen dut Kultureko auditoriuma doan erabiltzeko baimenak eman izan zaizkiela aurretik Andrak elkarteari adibidez eta beste kultur elkarte batzuei ere, nahiz eta informazio egokia bildu nahi dudan erantzun zehatza emateko.

## **12.- PRESAZKO MOZIOAK:**

Atal honetan ez da presazko moziorik aurkeztu.

## **13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Oso galdera teknikoa da: logotipoa dagoeneko Merkataritza Erregistroan erregistratu eta inskribatu den jakin nahi dut, nahiz eta ez dakigun hori nahitaezkoa den eta gaia aztertzen ari garen.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Bagenekien Iñaki Gomendiourrutia animalia politikoa zela, baina ez genekien leku berean bi aldiz irauliko zela, baina ongi etorri eta onerako izan dadila.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** esandakoaren laburpena:

Zuei erantzun eta harrera hauxe eskertu behar dizuet bai pribatuan bai jendaurrean gero. Espero dut zuek arinegi ez damutzea eta guztiok kudeaketa egokiaz gozatu ahal izatea. Logotipoari dagokionez, ez zait gehiegi gustatzen baina Leioaren "L" hori ezkeralderantz okertuta ikusteak bihotza ukitu didala ulertuko duzue.

Eta 20:00ak direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,